

ZARIAIA MENDIARTEKO HIDROGEOLOGIA

Felix M^a Ugarle

Aloina-Mendi espeleologi taldekoa.

Egun hauetan bukatu da GAZTELU URZULOKO azterketa eta topografia. Azterketa hontan, 500 metroko sakontasunera heldu ginen kareharrian barrena; honela, leize hau da gaur egun Euskal-Herrian sakonenetakoa. Gertaera honek, Zariaia aldeko hidrogeologia aztertzeo asmoa gure artean berpiztu du.

Orain dela urte batzuk (1) kolorazio bi egin zen fluoreszeinaz Deguria eta Alabita sakonetako urzuloetan, hauen eta behealdeko (ur) berragerpenen (Urbaltz, Saratxo,...) arteko harremanak ikertzeo. Garbi ikusi genuen orduan lurpeko urek, karst hontako gehienek behintzat, Saratxo aldera jotzen zutela. Urbaltz, Bolibar, Mendiola eta Arantzazu erreka iturri batzuk erlazio hontatik at geratzen ziren.

Gazteluko urzuloa 980 metro inguruan dagoela eta Saratxoko urberragerpena 480 metrora azaltzen dela kontuan hartzen badugu, ondorena bien tartean 500 metro inguru daudela da (2). Gaztelu arroko leizeaz (hau ere Urzulotik hurbil dago Degurian), gutxi gora behera berdin gertatu zen. Honek ere 444 metro sakondu zuen sifonatu baino lehen. Sifonatze hau, garbi dago, geruza freatikoraino iristen direlako edo oinharri maila berdineraino iristen direlako, gertatzen da.

Baina gure galdera hau da: Zergatik dago oinharri maila hau Saratxon (480 m.), beheago Arantzazu-errekan (300 m.) ere, kareharri berberak jarraitzen baitu? Erantzuna ez da erreza; gu hipotesi batekin geratzen gara. Saratxo gaineko (700 m.) eta Arantzazu erreka (300 m.) bitarteko mailetan, gerura guztiak ez dira kareharrizkoak, tartean tuparri eta grés urdinak ezartzen baitira, P. Rat-en eritziz (3). Geruza hauek iragazkaitzak izanik, Saratxo eta Arantzazu-erreka kareharrien harremanak moztzen dituzte. Geruza hau garbi agertzen dira Araozko bailaran.

Ikuspegi hau, Zariaiako hidrogeologiaren problema erabakitzeo asmoagaz azaltzen dugu. Dena dela badakigu alde batzuk oraindik ilunak daudela, adibidez: Urbaltz, Bolibar Mendiola etab. ur-berragertuen sorrera. Zariaiako hidrogeologia behar den bezala aztertzea nahi baldin bada, gure ustez, ur-kolorazio gehiago egin behar da, batez ere Orkatzategi inguruan 500-700 m. mailan; Kurutzebarriko maldetan (500-700 m.) eta Arbeko erreka-arroan. Baina kolorazio hauek problema bat daukate: Orkatzategi eta Kurutzebarrin inguruetan ez dagoela ur-korronterik lur-azalean.

Oinatin, 1977-ko uztailean.

- (1) Ikus: «Trabajos sobre el karst de S-W de Guipúzcoa». G. E. Aloña-Mendi. Vitoria - 1974.
- (2) Hauxe da, hain zuzen, leizeak duen sakontasuna.
- (3) Rat. Pierre. «Les Pays Cretacées basque-cantabriques». Université de Dijon - 1959.
Llopis-Lladó N. «Características hidrogeológicas...»
Speleon VIII Oviedo 1957

Llopins-entzat Araozko geruzak tuparri urdinak eta harbelak izango lirateke, Aptense aldikoak.

